BESTELAKO XEDAPENAK

JAURLARITZAREN LEHENDAKARITZA

3804

EBAZPENA, 2011ko ekainaren 24koa, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeko zuzendariarena, Euskal Autonomia Erkidegoan emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren alde diharduten elkarte mistoentzako eta gizon-elkarteentzako 2011ko diru-laguntzak arautzen dituena.

Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundea sortzeari buruzko otsailaren 5eko 2/1988 Legearen 2. artikuluan xedatutakoaren arabera, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearen helburu nagusia da emakumeen eta gizonen artean berdintasuna lortzea -benetakoa eta eraginkorra-, Euskal Autonomia Erkidegoko politikagintzaren, ekonomiaren eta gizartearen esparru guztietan. Emakunderen helburuak dira beraz, sexuen arteko berdintasuna bideratzeko baldintzak sustatzea; berdintasun hori -izatez eta zuzenbidez- osotasunez garatzeko dauden oztopoak kentzea; eta emakumea baztertzeko edozein modu deuseztatzea Euskadin.

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legeak, 24.3 artikuluan, EAEko herri-administrazioei eskatzen die susta ditzatela emakumeen eta gizonen berdintasuna lortzeko jarduerak egiten dituzten elkarteak.

Bestalde, EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako V. Planean (Jaurlaritzaren Kontseiluak 2010eko ekainaren 29an onartua), emakumeen eta gizonen berdintasuna xede duten edo horretara bideratutako helburuak dituzten gizarte-antolakundeak gehitzearen helburua jasotzen da, Ahalduntzeari eta Balio-aldaketari buruzko I. ardatz estrategikoaren barruan.

Horren haritik, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeak programa espezifiko bat du berdintasunaren alde diharduten emakume-elkarteei diru-laguntzak emateko. Deialdi horretatik kanpo geratzen dira elkarte mistoak eta gizon-elkarteak. Horregatik, programa berri honen bidez diru-laguntzak eman nahi zaizkie elkarte mistoei eta gizon-elkarteei, aurrera egin dezaten berdintasuna sustatzeko jarduera espezifikoak egiten.

Dena den, xede orokorrak dituzten elkarteak eta/edo federazioak izatea eskatuko da, alegia, elkarte horiek, beste xede batzuen artean, elkartekideen interesak gainditzen dituzten interesak ase behar dituzte, eskuarki eta lehentasunez hirugarrenen edo gizarte osoaren aldeko jarduerak egin behar dituzte eta beste pertsona batzuei ere elkartean borondatez sartzeko aukera eskaini behar diete.

Horrenbestez, 4/2005 Legearen 24.3 artikuluan ezarritakoa betez eta Berdintasunerako V. Planaren esparruan, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeak aurreikusita dauka 2011ko ekitaldian diru-laguntzak ematea, emakumeen eta gizonen berdintasunaren alde diharduten irabazi-asmorik gabeko elkarte eta federazio mistoei edo gizonez osatutakoei. Horretarako arautzen da diru-laguntzen deialdi hau, publizitate, lehia eta objektibotasun irizpideen arabera.

Horrenbestez, hau

EBATZI DUT:

1. artikulua.– Xedea.

Ebazpen honen xedea da emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzen diharduten irabazi-asmorik gabeko federazio eta elkarte mistoentzako eta gizonez osatutakoentzako diru-laguntzak arautzea. Erakundearen xede eta helburuei loturiko proiektu zehatzak egin beharko dituzte 2011ko ekitaldian, hurrengo artikuluek xedatutakoari jarraiki eta Erakundearen aurrekontuaren IV. kapituluan ezarritako kreditu-mugetatik atera gabe.

2. artikulua.– Diru-baliabideak.

Emakunderen aurrekontuetan horretarako ezarritako aurrekontu-kredituetatik aterako dira aurreko artikuluan adierazitako xedeak lortzeko diru-baliabideak. Zenbatekoa hogeita hamar mila (30.000) eurokoa izango da.

3. artikulua.– Laguntzak emateko prozedura eta laguntzen diru-zenbatekoa.

1.– Deialdi hau lehiaketa-prozeduraz ebatziko da, ebazpen honen 10. artikuluan ezarritakoaren arabera.

2.– Diru-laguntzaren zenbatekoa gehienez ere hiru mila (3.000) eurokoa izango da jarduerako. Onartzen den aurrekontuaren % 100 finantza daiteke. Erakunde onuradun bakoitzeko bi jarduera lagundu daitezke, gehienez ere.

3.– Aurreko lerroaldean aipatutako aurrekontua onartzeko, besteak beste irizpide hauek hartuko dira kontuan:

– Ebazpen honetan zehaztutako araubidearen babesean, diruz lagun daitezkeen gastutzat jotzen dira jarduera egiteko beharrezkoak diren kostuak eta funtzionamendu-gastu arruntak, hain justu ere, erakunde eskatzaileak aurkezten duen aurrekontu banakatu eta zehaztuan azaltzen direnak eta jarduera garatzearekin zuzeneko lotura dutenak.

– Soil-soilik lagundutako proiektua garatzen –eta ez beste ezertan- diharduten pertsonen soldata eta lansariak baino ez dira sartuko.

– Diruz lagun daitezkeen gastutzat ezingo da jarri BEZ kengarriaren zenbatekoa, erakunde eskatzailea zerga horren aitorpena egitera behartuta badago. Inbertsio-gastuak ere ez dira lagunduko.

4.– Erakunde eskatzaileak aurkeztutako aurrekontuan, artikulu honen arabera diruz lagundu ezinak diren gastuak agertzen badira, Hautaketa Batzordeak ez ditu zenbatuko diruz lagundu daitezkeen gastuen aurrekontua zehazterakoan; izan ere, aurrekontu hori hartuko da kontuan ebazpen-proposamenean diru-laguntzaren zenbatekoa zehazteko.

4. artikulua.– Erakunde onuradunak.

1.– Ebazpen honek araututako diru-laguntzak erakunde hauek eska ditzakete: Euskadiko Elkarteei buruzko ekainaren 22ko 7/2007 Legearen aplikazio-eremuan dauden irabazi-asmorik gabeko elkarte eta federazio mistoek eta gizonez osatutakoek; beharrezkoa izango dute, batetik, jarduera Euskal Autonomia Erkidegoaren lurralde-eremuan garatzea eta egoitza soziala ere Euskal

Autonomia Erkidegoan edukitzea, eta bestetik, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzen lan egitea.

2.– Ez dira onuradun izango soilik emakumeez osatutako elkarte eta federazioak, ez eta xede partikularrak dituzten elkarte eta federazioak ere, Euskadiko Elkarteei buruzko ekainaren 22ko 7/2007 Legearen 5. artikuluan ezarritako sailkapenarekin bat etorriz.

3.– Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak eta horren organo autonomoek emandako izaera bereko laguntzei edo diru-laguntzei dagokienez, itzulketa- edo zehapen-prozeduraren bat hasita badago eta oraindik izapidetzen ari bada, aipatu prozedura amaitzea ezinbestekoa izango da diru-laguntzak ordaindu ahal izateko.

5. artikulua.– Diruz lagun daitezkeen jarduerak.

1.– Diruz lagun daitezkeen proiektu, programa edo jarduerak 2011ko urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra bitartean egin behar dira, eta, Erakundearen helburuekin eta EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako V. Planarekin bat, prestakuntza-, informazio- eta/edo sentsibilizazio-jarduerak izango dira, honako hauek sustatzen dituztenak:

– Emakumeen autonomiaren garapena eta genero-kontzientzia ahalbidetzea.

– Balio-aldaketa sustatzea lan-eremuan eta etxean, sexuaren araberako estereotipoak eta gizarte-rolak ezabatuz.

– Emakumeek baliabide ekonomikoak eta sozialak baliatu eta kontrolatzeko modua hobetzea.

– Erantzun-kidetasuna eta zaintzaren etika.

2.– Honako hauek ez dira diruz lagunduko:

a) Aisialdirako baino ez diren jarduera-proiektuak.

b) Beste entitate batzuei eskainiko zaizkien zerbitzu eta ekintzak finantzatzeko proiektuak.

c) Genero-ikuspegirik gabeko proiektuak.

6. artikulua.– Eskabideak aurkeztea.

1.– Eskabideak aurkezteko epea ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunean hasiko da, eta 2011ko irailaren 9an amaituko da (bi egunak barne).

2.– Eskabideak ebazpen honetako eranskinean dauden ereduen arabera egin beharko dira, eta Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundean aurkeztu beharko dira (Manuel Iradier, 36, 01005 Vitoria-Gasteiz), hurrengo artikuluan eskatzen diren agiriekin batera. Zuzenean aurkez daitezke, edo azaroaren 26ko 30/1992 Legean ezartzen den beste edozein prozedura erabiliz (30/1992 Legea, Herri Administrazioen Araubide Juridiko eta Administrazio Prozedura Erkidearena).

Eskabideak, aurkeztu beharreko dokumentazioarekin batera, EAEko hizkuntza ofizial bietako edozeinetan aurkez daitezke. Eskabidearen ondoriozko jardueretan eta prozeduran zehar, erakundeak hautatutako hizkuntza erabiliko da, euskararen erabilera normalizatzeari buruzko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legearen 5.2.a eta 6.1 artikuluetan ezarritakoaren arabera.

Posta-bulegoaren bidez aurkezten diren eskabideak kartazal irekian jarri beharko dira, egiaztatu aurretik posta-zerbitzuko funtzionarioek eguna eta zigilua jartzeko. Hala egin ezean, dagokion bulego publikoan noiz sartzen den, egun horretan aurkeztutzat joko da.

7. artikulua.– Agiriak.

Eskabideak Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeko zuzendariari bidali behar zaizkio, agiri hauekin batera:

a) Erakunde eskatzaileari buruzko datuak (I. eranskina).

b) Elkarteen Erregistroan inskribatuta daudela frogatzen duen agiria.

c) Identifikazio Fiskalaren Txartelaren fotokopia.

d) Estatutuen fotokopia edo eratze-eskriturarena.

e) Egiaztagiri eguneratua, dagokion foru ogasunak egina, erakunde eskatzailea BEZaz salbuetsita dagoela egiaztatzeko, hala behar denean.

f) Egiaztagiri eguneratua, dagokion foru ogasunak egina, gehienez jota eskabidearen egunaren aurreko hiru hil lehenago egina, zerga-betebeharrak ordainduta daudela egiaztatzeko. Zor bat atzeratzea lortzen duen elkarte edo federazioak ordainketak eguneratuta dauzkala joko da, agiri bidez egiaztatzen baldin badu.

g) Gizarte Segurantzaren egiaztagiria, enpresa-kuotak ordainduta izatearena, proiektua egiteko langileak kontratatzen direnean.

h) «Datuen alta/Hirugarren Interesduna» inprimakia, II. eranskinaren arabera. Inprimaki hori ez da aurkeztu beharko erakundea Eusko Jaurlaritzako Hirugarrenen Erregistroan alta emanda baldin badago.

i) III. eranskinean jasotako zinpeko adierazpenak.

j) 2011ko urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra bitartean egin beharreko jardueren programa. Laguntza eskatu den jarduera bakoitzeko IV. eranskina -osorik- bete beharko da.

k) 10.1 artikuluan jasotako irizpideak egokiro baloratzeko beharrezkotzat jotzen den beste edozein dokumentazio. Hala nola, jarduerak egiten parte hartuko duten lagunek emakumeen eta gizonen berdintasunaren alorrean duten gaikuntza egiaztatzen duen curriculuma (V. eranskineko eredua) eta emakumeen eta gizonen berdintasunaren alorreko jardueretan erakunde eskatzaileak duen ibilbidea (VI. eranskineko eredua).

8. artikulua.– Aurkeztutako eskabideetan egindako akatsak zuzentzea.

Diru-laguntzarako eskabideak behar bezala betetzen ez badira edo 7. artikuluan eskatutako agiriren bat falta badute, Emakundek falta den agiria aurkezteko edo antzemandako hutsa zuzentzeko eskatuko dio eskatzaileari, eta hamar eguneko epea emango dio, jakinarazpena egin eta biharamunetik aurrera. Horrez gain, eskatutakoa egin ezean, eskaera ezetsi egingo dela ohartaraziko zaio eskatzaileari; ezesteko, aurretiaz ebazpena emango da, Herri Administrazioen Araubide Juridiko eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 42. artikuluan agindutakoari jarraiki.

9. artikulua.– Hautaketa eta Jarraipen Batzordea.

1.– Hautaketa eta Jarraipen Batzordea osatuko da aurkeztutako eskaerak aztertu eta ebaluatzeko eta emandako diru-laguntzen jarraipena egiteko. Deialdi honetan ezarritako baldintzak betetzen direla egiaztatuko du, eta ondoren, esleipen-proposamen arrazoitua aurkeztuko dio Emakunde-

Emakumearen Euskal Erakundeko zuzendariari -zuzendariak laguntzak emateko ebazpena har dezan-; gero, justifikazioari dagokion jarraipena egingo du.

2.– Hautaketa eta Jarraipen Batzordeko kideak:

Lehendakaria: Idazkari nagusia.

Epaimahaikideak:

– Administrazio eta Zerbitzuen arduraduna.

– Generoaren arloko Plangintza eta Ikerketaren arduraduna.

– Aholkularitza Juridikoko Arlo-arduraduna.

Idazkaria: Aholkularitza Juridikoaren arduraduna.

10. artikulua.– Diru-laguntzen zenbatekoa zehazteko eta esleitzeko irizpideak.

1.– Diru-laguntzak esleitzeko, Hautaketa Batzordeak irizpide hauek hartuko ditu kontuan:

a) Proiektu, programa edo jardueraren kalitate teknikoa. 50 puntu, gehienez.

– Proposamena argia izatea helburuak eta ekintzak, lan-metodologia eta ebaluazio-adierazleak formulatzerakoan. 20 puntu, gehienez.

– Proiektua, programa edo jarduera abiaraztea eta/garatzea bideragarria izatea, baliabideak kontuan hartuta (langileak, denbora eta dirua). 10 puntu, gehienez.

– Jarduerak egiten parte hartuko duten pertsona fisikoek edo juridikoek emakumeen eta gizonen berdintasunaren alorrean duten gaikuntza. 10 puntu, gehienez.

– Proposamena zenbateraino egokitzen den diruz lagun daitezkeen jardueretara eta V. Planeko helburuetara. 5 puntu, gehienez.

– Elementu berritzaileak. 5 puntu, gehienez.

b) Proiektu, programa edo jardueraren gizarte-onura. 30 puntu, gehienez.

– Zein kolektiborentzat den. 10 puntu, gehienez.

– Hartzaile kopurua. 5 puntu, gehienez.

– Askotariko bereizkeria kontuan hartzea. 5 puntu, gehienez.

– Jardueraren lurralde-eremua. 5 puntu, gehienez.

– Hedapen-tresnak. 5 puntu, gehienez.

c) Emakumeen eta gizonen berdintasunera bideratutako jarduerak garatzen erakunde eskatzaileak duen ibilbidea. 10 puntu, gehienez.

d) Irisgarritasuna eta bateragarritasuna ahalbidetzen duten elementuak sustatzea. 5 puntu, gehienez.

e) Euskara eta espainiera erabiltzea jardueraren publizitatean edo garapenean. 5 puntu, gehienez.

2.– Diru-laguntza jasotzeko, proiektuek 40 puntu lortu behar dituzte, gutxienez.

3.– Aurkeztutako jarduera-proiektuak balioetsi ondoren, eskatutako gutxieneko puntuazioa lortu dutenak hurrenkeran jarriko dira -beheranzko noranzkoan-, lortutako puntuazioaren arabera. Hurrenkera horri jarraituz esleituko dira laguntzak, ebazpen honen 3.2 artikuluak uzten duen gehienezko kopuruak kontuan hartuta, eta -hala dagokionean- deialdiko dotazioa agortu arte.

11. artikulua.– Beste diru-laguntza edo laguntza batzuekiko bateragarritasuna.

Deialdi honetan ezarritako diru-laguntzak bateragarriak dira gainerako erakunde publiko edo pribatuek helburu berarekin ematen dituztenekin, baldin eta gainfinantzaketarik ez badago. Gainfinantzaketa gertatuz gero, dagokion gehienezko mugaraino murriztuko da diru-laguntza.

12. artikulua.– Ebazpena.

1.– Laguntzak esleitzeko, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeko zuzendariak hartuko duen ebazpenak amaitu egingo du prozesua, eta emandako eta atzera botatako laguntzak adieraziko ditu. Ebazpena banan-banan jakinaraziko zaie erakunde eskatzaileei. Emandako diru-laguntzen zerrenda Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian ere argitaratuko da, jendeak horren berri izan dezan.

2.– Eskabideak ebazteko eta ebazpena jakinarazteko epea 2011ko azaroaren 30era artekoa izango da, gehienez ere. Epe horretan enpresa edo entitate interesdunari ebazpenik jakinarazten ez bazaio, diru-laguntzarako eskaera ezetsi egin dela esan nahiko du, hala agintzen baita azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 44.1 artikuluan (30/1992 Legea, Herri Administrazioen Araubide Juridiko eta Administrazio Prozedura Erkidearena).

3.– Ebazpenean, erakunde onuradunen zerrenda jasoko da -diruz lagunduko diren proiektuak eta bakoitzari emandako zenbatekoak jarrita-, eta horretaz gain, ordezko erakundeen zerrenda ere jaso daiteke, onuradunen batek uko eginez gero, ordezkoengana jo ahal izateko, 13.a artikuluan aurreikusitako epearen barruan. Erakunde horiek ordezkapen-hurrenkeraren arabera zerrendatuko dira, diruz lagunduko diren proiektuak adieraziko dira eta, onuradunak uko eginez gero, ordezkoaren laguntzak izan lezakeen gehienezko zenbatekoa ere azalduko da; zenbateko hori sekula ez da izango uko egin duen onuradunari esleitutakoa baino handiagoa.

13. artikulua.– Erakunde onuradunen betebeharrak.

Ebazpen honetan arautzen diren diru-laguntzen erakunde onuradunek betebehar hauek izango dituzte:

a) Emandako diru-laguntza onartu behar dute. Horrela, diru-laguntza eman zaiela jakinarazteko idazkia jaso eta hamabost eguneko epean pertsona edo erakunde onuradunek diru-laguntzari beren-beregi eta idatziz uko egiten ez badiote, diru-laguntza onartu egin dutela esan nahiko du.

b) Diru-laguntza zertarako eman den, xede horretarako erabili behar dute, non eta 15. artikuluan ezarritakoa aplikatzen ez den, eta diruz lagunduko diren jarduerak Emakundek noiznahi egiaztatzea onartu beharko dute.

c) Kontrol Ekonomikoko Bulegoari eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiari, beren eginkizunetan dihardutela, deialdi honen kontura jasotako diru-laguntzen inguruan eskatutako informazioa eman behar diete.

d) Diruz lagundutako jardueretan aldaketak egiteko, idatziz jakinarazi beharko dute, Erakundeko Zuzendaritzaren berariazko onespena beharrezkoa baita aldaketak egiteko.

e) Diruz lagundutako jarduerei buruzko publizitate orotan, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearen laguntza jaso dela azaldu behar da (VII. eranskina). Elkarteak edo federazioak jardueraren edukiak bere gain hartzen dituela adierazi behar da jardueraren publizitatean edo diruz lagundutako argitalpenetan.

14. artikulua.– Diru-laguntza justifikatzea eta ordaintzea.

1.– Diru-laguntza zatika ordainduko da: ehuneko hirurogeita hamabost, 13.a) artikuluan aipatutako epea igaro ondoren -uko egin gabe-, eta gainerakoa, ehuneko hogeita bost, diruz lagunduko jardueretan sortutako gastu guztiak justifikatu ondoren; bigarren zatia ordaintzeko, agiri hauek aurkeztu beharko dira 2012ko urtarrilaren 23ra arteko epean (egun hori barne):

– Jasotako funts publikoak zertan erabili diren justifikatzeko memoria. Memoria horretan, VIII. eranskineko ereduaren arabera, egindako jarduerak, lortutako emaitzak eta helburuak eta erabilitako metodologiaren balorazioa deskribatuko dira, baita diruz lagundutako jarduera bakoitzaren balantze ekonomikoa ere.

– Diruz lagundutako jardueratik ateratako produktua, halakorik balego.

– Diruz lagundutako gastua egin dela justifikatzen duten fakturak edo agiriak edo Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeak konpultsatutako fotokopiak; kasu horretan, Emakundek jatorrizko fakturei zigilua jarriko die, eta, ondoren, erakunde interesdunari itzuliko dizkio; funtsak behar bezala erabili direla egiaztatzeko behar beste xehetasun eman beharko da. Fakturetako edo agirietako gastuaren data 2011ko abenduaren 31 izango da, gehien jota.

– Soil-soilik lagundutako proiektua garatzen -eta ez beste ezertan- diharduten pertsonen soldata eta lansariak justifikatzeko agiriak.

– Funtzionamendu-gastu arrunten egiaztagiriak; gastu horiek erakunde eskatzaileak aurkeztutako jardueraren aurrekontu banakatu eta xehatuan agertu behar dira, eta jardueraren garapenari lotuak egon behar dute ezbairik gabe.

– Diruz lagundutako jardueren publizitatean Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearen lankidetza agertu dela eta elkarteek edo federazioek jarduerak bere gain hartu dituztela egiaztatzen duten egiaztagiriak.

– Erakunde jasotzaile bakoitzeko, 3.000 eurotik gora ematen diren diru-laguntzetan: egiaztagiri eguneratua, zerga-betebeharrak ordainduta daudela egiaztatzeko; dagokion foru ogasunak egin beharko du, artikulu honetan jasotako agiriak aurkeztu aurreko hiru hil lehenago, gehien jota.

2.– Proiektuaren behin betiko kostu osoa gutxitzen bada, diru-laguntza kalkulatzeko kontuan hartu zen kostuari dagokionez, edo gastua egiaztatzeko agirien bidez (fakturak, ordainagiriak, etab.) justifikatzen den zenbatekoa emandako laguntza baino txikiagoa bada, dagokion zati proportzionala kenduko zaio diru-laguntzaren zenbatekoari.

15. artikulua.– Diru-laguntza emateko inguruabarrak aldatzea.

1.– Diru-laguntza emateko kontuan izandako inguruabarren bat aldatzen bada, Emakundeko Zuzendaritzari jakinarazi behar zaio. Diru-laguntzak emateko ebazpena aldatu egin daiteke, baldin eta diru-laguntza emateko kontuan izan diren inguruabarrak aldatu badira -betiere, diru-laguntzaren helburua bete bada- eta bestelako erakunde publiko edo pribatu batek, aldi berean, laguntzarik edo diru-laguntzarik eman badu.

2.– Aurreko artikuluan aipatutako agiriak edo, bestela, artikulu honetako aurreko zatian aipatutakoak jaso, eta agiriak aztertu eta ebaluatu ondoren, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeko zuzendariak emandako diru-laguntza aldatu eta/edo likidatuko du, administrazio-bidea amaitutzat emango duen ebazpen baten bidez; horrez gainera, diru-laguntzen zenbatekoak egokituko ditu -hala behar denean-, itzuli beharreko zenbatekoa zehaztuko du -hala badagokio- eta 15 eguneko epea emango du dirua itzultzeko.

16. artikulua.– Ez-betetzeak.

Diru-laguntza emateko kontuan hartu ziren baldintzetako bat edo batzuk betetzen ez direla egiaztatzen bada, jasotako zenbatekoak eta zenbateko horri dagozkion legezko interesak itzuli egin beharko dira Euskal Autonomia Erkidegoko Diruzaintza Nagusira, azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuan eta abenduaren 17ko 698/1991 Dekretuan ezarritakoaren arabera. Horretaz gain, dagozkion gainerako ekintzak gauzatuko dira.

17. artikulua.– Dirua itzultzeko prozedura.

Ezarritako baldintzak edota betebeharrak betetzen ez direnean, abenduaren 17ko 698/1991 Dekretuan agindutako prozedurari jarraituko zaio emandako diru-laguntza itzultzeko. Dekretu horrek hau ezartzen du:

a) Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeko zuzendariak prozeduraren hasiera eta prozedura funtsatzeko arrazoiak jakinaraziko dizkio erakunde interesdunari, eta 15 egun balioduneko epea emango dio alegazioak aurkezteko.

b) Alegazioak jaso ondoren edo alegaziorik egin gabe epea amaitu ondoren, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeko zuzendariak amaitutzat joko du prozedura, ebazpen baten bidez. Ebazpen horrek administrazio-bidea amaituko du.

Ebazpenean baldintzak bete ez direla adierazten bada, galdutzat joko da diru-laguntza jasotzeko eskubidea, eta, beharrezkoa bada, jasotako zenbatekoak eta aplikatzekoak diren legezko interesak Euskal Autonomia Erkidegoko Diruzaintza Nagusira itzultzeko aginduko da. Dirua hil biko epean itzuli beharko da, jakinarazpena egiten den egunetik hasita. Epe hori borondatezko alditzat joko da.

c) Borondatezko aldian itzulketarik egiten ez bada, Eusko Jaurlaritzaren Ekonomia eta Ogasun Saileko organo eskudunari jakinaraziko zaio, premiamendu-bideari ekin diezaion, aplikatzekoa den legezko araudian xedatutakoari jarraituz.

d) Aplikatzekoak diren arauak betetzen ez badira, gehienez ere sei hiletan ebatzi eta jakinaraziko da emandako diru-laguntzak itzultzeko prozedura (artikulu honetan arautua).

18. artikulua.– Datu pertsonalen tratamendua.

Deialdi honetan parte hartzen duten lagunen datu pertsonalak Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearen fitxategi automatizatu batean sartuko dira, datuen tratamendua egiteko. Fitxategi hori Datu Pertsonalak Babesteari buruzko 15/1999 Lege Organikoan xedatutakora lotuta dago eta Erakundeak sustatzen dituen laguntzak kudeatzeko baino ez da erabiliko. Interesdunek eskubidea dute datuak ikusteko, zuzentzeko, ezerezteko eta aurka egiteko, legearen arabera. Eskubide horiez baliatzeko, idazki bat bidali beharko diote fitxategiaren arduradunari, hots, Azterlan, Plangintza eta Dokumentazio Arloari: Manuel Iradier kalea, 36, 01005 Vitoria-Gasteiz.

AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa.– Ebazpen honek amaitu egiten du administrazio-bidea. Ebazpenaren aurka, interesdunek berraztertzeko errekurtsoa aurkez diezaiokete Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeko zuzendariari, hilabeteko epean, ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera; bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez dezakete zuzenean, dagokion Administrazioarekiko Auzietako Epaitegian, hil biko epean, ebazpena EHAAn argitaratu eta biharamunetik aurrera.

Bigarrena.– Ebazpen honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunean izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteiz, 2011ko ekainaren 24a.

Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeko zuzendaria,
MARÍA SILVESTRE CABRERA.

ERAKUNDE ESKATZAILEAREN IZENA

ESKABIDEAREKIN BIDALTZEN DIREN AGIRIAK

Datu orokorrak (I. eranskina).	☐
Elkarteen Erregistroan inskribatuta egotearen ziurtagiria.	☐
Identifikazio Fiskalaren Txartelaren fotokopia.	☐
Estatutuen fotokopia edo eratze-eskriturarena.	☐
Egiaztagiri eguneratua, dagokion foru ogasunak egina, erakunde eskatzailea BEZaz salbuetsita dagoela egiaztatzeko, hala behar denean.	☐
Egiaztagiri eguneratua, dagokion foru ogasunak egina, zerga-betebeharrak ordainduta daudela ziurtatzeko, eskabidearen egunaren aurreko hiru hil lehenago egina, gehienez jota.	☐
Gizarte Segurantzaren egiaztagiria, enpresa-kuotak ordainduta izatearena, proiektua egiteko langileak kontratatzen direnean.	☐
"Datuen alta/Hirugarren interesduna" inprimakia (II. eranskina). Inprimakia ez da aurkeztu beharko erakundea Eusko Jaurlaritzako Hirugarrenen Erregistroan alta emanda baldin badago.	☐
Zinpeko adierazpenak (III. eranskina).	☐
Jardueren programa eta aurrekontu banakatuak (IV. eranskina). Jarduera bakoitzeko bana.	☐
Beste agiri batzuk (zehaztu):	
Berdintasunaren alorreko gaikuntza egiaztatzen duen curriculuma (V. eranskina). Partehartzaile bakoitzeko bana.	☐
Berdintasunaren alorreko jardueretan erakunde eskatzaileak duen ibilbidea (VI. eranskina)	☐
	☐
	☐
	☐
	☐

I. ERANSKINA

DATU OROKORRAK

ELKARTEAREN DATU OROKORRAK			
Erakunde eskatzailearen izena:			
IFK:	Bazkide kopurua:	Emakumezkoak:	Gizonezkoak:
Sozietatearen helbidea (helbidea, PK eta herria):			
Jakinarazpenak bidaltzeko helbidea (aurreko helbidea ez bada):			
Helbidea:			PK:
Herria:		Herrialdea:	
Telefonoa:	e-posta:		
Faxa:	Web-orrialdea:		
Elkarteen Erregistroaren zenbakia:			Erregistro-data:

ELKARTEAREN EDO FUNDAZIOAREN BANKETXE-DATUAK ①																			
Banketxea:																			
Banko-sukurtsalaren helbidea:																			
Banketxea				Bulegoa				ZK		Kontu zenbakia									

① Oharra: Beharrezkoa da elkartea banku-kontuaren titularra izatea. Kontu-zenbakia aldatuz gero, “Datuen alta/Hirugarren interesduna” inprimakia bete beharko da (V. eranskina).

ELKARTEAREN EDO FUNDAZIOAREN LEGEZKO ORDEZKARIA	
Izen-abizenak:	NAN:
Helbidea:	Herria:
Telefonoa:	e-posta:

Izenpea eta zigilua:

II. ERANSKINA

DATUEN ALTA/HIRUGARREN INTERESDUNA

A HIRUGARRENA IDENTIFIKATZEKO DATUAK

(1)...IFZ edo NAN: .....

(2)...Izena eta bi abizenak edo Sozietatearen izena: .....

Helbidea: .....

Posta Kodea: ..... Herria: .....

Lurraldea: ..... Herrialdea: .....

B BANKUAREN DATUAK

(1) Bankua

(2) Agentzia

(3) KD K/Korrontea

(4) Titularra .....

Oharra: Kontu korrontearen titularrak hirugarren interesduna bera behar du izan.

C ...ren adostasuna

Sinadura eta zigilua

D ...rren interesdunaren adostasuna

Sinadura eta zigilua

E ...n edo Erakundearen onespena

Baimendutako sinadura eta zigilua

Data ..... / ..... / .....

Datu pertsonalak Babesteko 15/1999 Lege Organikoan ezarritakoa betez, Ekonomia eta Ogasun Sailak jakinarazten dizu dokumentu honen bitartez jarri dituzun zure datu pertsonalak fitxategi automatizatu baten sartuko ditugula, ondoren, erabili ahal izateko.
Aipatutako Lege horretan jasotzen den moduan, datuok ikusi, zuzendu edo ezabatu nahi dituzula edo ez dituzula jarri nahi adierazteko, helbide honetara jo dezakezu: Ekonomia eta Ogasun Saileko Zerbitzu Zuzendaritza, Donostia-San Sebastián kalea, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz.

INPRIMAKIAK BETETZEKO JARRAIBIDEAK

A: Pertsona (fisikoa edo juridikoa) identifikatzeko datuak, ondoren adierazten denaren arabera.

1. Pertsona fisikoa: nortasun agiri nazionalaren zenbakia, identifikazio fiskalaren zenbakia edo, atzerritarren kasuan, pasaporte zenbakia.

Pertsona juridikoa: identifikazio fiskalaren kodea.

2. Pertsona fisikoa: izena eta bi abizen.

Pertsona juridikoa: izena edo izen soziala.

B: Banku-datuak.

1.- Bankuaren kodea eta izena.

2.- Agentziaren kodea eta izena.

3.- Titularrak bankuan duen kontuaren kontrol-digitua eta zenbakia.

4.- Izena eta bi abizenak, pertsona fisikoaren kasuan, eta izena edo izen soziala, pertsona juridikoaren kasuan.

Kontu korrontearen titularrak eta hirugarren interesduna bera behar du izan.

C: Bankuaren sinadura eta zigilua, bankuaren datuak ziurtatzeko.

D: Hirugarren interesdunaren sinadura eta zigilua, agirian azaltzen diren datuak zuzenak direla ziurtatzeko.

E: Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak betetzeko.

DOKUMENTAZIO EUSKARRIA

Nortasun agiri nazionalaren fotokopia, pasaportearena atzerritarren kasuan, edo identifikazio fiskalaren txartelaren fotokopia erantsiko da.

III. ERANSKINA

Erakundearen izena:

_____

(legezko ordezkariaren izen-abizenak)

Zinpean adierazten du ordezkatzen duen erakundeak -arestian aipatuak-:

1.- Ez duela administrazio-zehapenik nahiz zehapen penalik sexuaren ziozko bereizkeria egiteagatik, eta horretaz gain, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunari buruzko otsailaren 18ko 4/2005 Legearen itzalpean ez zaiola debekurik jarri ebazpen honetan araututako diru-laguntza eta laguntzak eskatzeko.

2.- Ez duela diru-laguntzak edo laguntza publikoak jasotzea eragozten dien zehapenik, ez eta laguntzak jasotzeko gaitasuna kentzen dion lege-debekurik ere.

3.- Zinpean adierazten du, halaber, beste finantzabide hauek dituela, eta bere gain hartzen duela gainfinantzaketarik ez gertatzeko erantzukizuna (dagokiona aukeratu):

	Erakundea	Kopurua	Egoera
☐	Eusko Jaurlaritza		
☐	Foru Aldundia		
☐	Udala		
☐	Besterik (zehaztu):		
☐			
☐			
☐	Ez duela beste finantzabiderik adierazten du.		

……..……..……..…(e)n, 2011ko ……..……ren ……(e)an..
(Tokia) (Hilabetea) (Eguna)

Izenpetuta:

IV. ERANSKINA

JARDUEREN PROIEKTUA (Eranskin bat erabili jarduera bakoitzeko)

Erakunde eskatzailearen izena:
Jardueraren izena:

Proposamena zehaztea, Ebazpenaren 5. artikuluan jasotako jarduerei dagokienez eta EAEko Emakumen eta Gizonen Berdintasunerako V. Planean adierazitako esku-hartze ardatz, programa eta helburuei dagokienez.

Helburuak: 1.- 2.- 3.- 4.-

Proiektuaren jarduera zehatzak:

Lan-metodologia:

Ebaluazio adierazleak/irizpideak:

Jardueraren egutegia:
Ordu kopurua:
Hasiera-data:
Amaiera-data:

Jardueraren lurralde-eremua:
Tokikoa ☐ Lurralde Historikoa ☐ Autonomia Erkidegoa ☐

Jarduera egiteko tokia edo tokiak:

Jarduera norentzat den:

Jardueran zenbat pertsonek parte hartuko duten (aurreikuspena): Emakumezkoak: Gizonezkoak:

Hedapen-tresna:

Elementu berritzaileak:

Irisgarritasuna eta bateragarritasuna ahalbidetzen duten elementuak:

Jarduera hizkuntza honetan egingo da / La actividad se realizará en:

Euskara ☐ Castellano ☐ Ele bitan ☐ Besterik ☐

PROIEKTUAREN AURREKONTUA (jarduera bakoitzerako)

GASTUAK

Hizlarien/irakasleen gastuak:
- Ordainsariak: _____
- Ostatua: _____
- Garraioa: _____
- Besterik (zehaztu): _____

Material-gastuak:
- Fotokopiak: _____
- Material didaktikoak (liburuak, ikus-entzunezkoak...) _____
- Material-alokairua: _____
- Beste material batzuk (zehaztu): _____

Publizitatea:
- Diseinuak eta logotipoak: _____
- Kartelak eta liburuxkak: _____
- Prentsako eta irratiko iragarkiak: _____
- Besterik (zehaztu): _____

Jarduerak egiteko lokalak alokatzea: _____

Gastu arruntak:
- Posta: _____
- Telefonoa eta faxa: _____
- Besterik (zehaztu): _____

Beste gastu batzuk (zehaztu): _____

Gastuak Guztira: _____

DIRU-SARRERAK

Elkartearen ekarpena: _____

Beste zenbait erakunderen ekarpena:
- Eusko Jaurlaritza _____
- Foru Aldundia _____
- Udala _____
- Beste batzuk (zehaztu) _____

Parte hartzaileen ekarpena: _____

Besterik (zehaztu): _____

Jarduerarako Emakunderi eskatzen zaion diru-laguntza: _____

Diru-sarrerak guztira: _____

V. ERANSKINA

EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNAREN ALORREKO GAIKUNTZA EGIAZTATZEN DUEN CURRICULUMA
(Eranskin bat erabili partehartzaile bakoitzeko)

Datu pertsonalak:
Izen-abizenak:
Jaiotze-data:
Helbidea:
Telefonoa eta/edo posta elektronikoa:

Prestakuntza akademikoa:

Berdintasunaren eremuari buruzko prestakuntza:

Lan esperientzia berdintasunaren eremuan:

Beste datu interesgarri batzuk:

VI. ERANSKINA

ERAKUNDE ESKATZAILEAK EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO JARDUERAK EGITEN DUEN IBILBIDEA

Erakundearen izena:

Beste datu interesgarri batzuk:
Atal honetan adierazi beharrekoa: erakundeak berdintasunerako proiektuak edo jarduerak egiten duen ibilbidea, eta -hala badagokio- erakundean berdintasunari buruzko prestakuntza duten langileak dauden, berdintausn-plan bat indarrean dagoen, emakumeen eta gizonen aukera-berdintasunerako lankidetza-erakundearen aitormena duen -Emakundek emana-, edo beste antzeko aitorpenik eta/edo saririk duen…

VII. ERANSKINA

Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearen markaren ezaugarriak

Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearen marka dagokion partaidetza-mailaren arabera adierazi eta kokatu beharko da hedatu beharreko publizitate-euskarrian, Eusko Jaurlaritzaren erakunde-nortasunaren eskuliburua arautzen duen abuztuaren 31ko 318/1999 Dekretuan ezarritako-arekin bat etorriz. Konfigurazio hau erabili beharko da:



VIII. ERANSKINA

JUSTIFIKATZEKO MEMORIA
(eranskin bat erabili proiektu bakoitzeko)

Erakundearen izena:		
Jardueraren izena:		
Jardueraren lurralde-eremua: Tokikoa ☐ Lurralde Historikoa ☐ EAE ☐		
Parte-hartzaileen kopurua: Emakumezkoak: Gizonezkoak:	Jarduera-lekua:	Ordu-kopurua:
Jardueraren egutegia: Hasiera-data: _____ Amaiera-data: _____		
Erabilitako hizkuntza: Euskara ☐ Castellano ☐ Ele bitan ☐ Besterik ☐		

Egindako jardueren deskribapena:

Proiektuan planteatutako ebaluazio-irizpideen emaitzak (IV. eranskina):

Lortutako helburuen balioespena:

Erabilitako metodologiaren balioespena:

Ondorioak:

Diruz lagundutako jardueraren ondoriozko produktua justifikatzeko aurkeztutako dokumentazioaren zerrenda eta/edo Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearen laguntza aipatu izanaren egiaztagiriarena (adibidez, Emakunderen logotipoa duten programak, kartelak, iragarkiak):

PROIEKTUAREN BALANTZE EKONOMIKOA (jarduera bakoitzerako)

GASTUAK

Hizlarien/irakasleen gastuak:
- Ordainsariak: _____
- Ostatua: _____
- Garraioa: _____
- Besterik (zehaztu): _____

Material-gastuak :
- Fotokopiak: _____
- Material didaktikoak (liburuak, ikus-entzunezkoak...) _____
- Material-alokairua: _____
- Beste material batzuk (zehaztu): _____

Publizitatea:
- Diseinuak eta logotipoak: _____
- Kartelak eta liburuxkak: _____
- Prentsako eta irratiko iragarkiak: _____
- Besterik (zehaztu): _____

Jarduerak egiteko lokalak alokatzea: _____

Gastu arruntak:
- Posta: _____
- Telefonoa eta faxa: _____
- Besterik (zehaztu): _____

Beste gastu batzuk (zehaztu): _____

GASTUAK GUZTIRA: _____

DIRU-SARRERAK

Emakunderen diru-laguntza: _____

Beste zenbait erakunderen ekarpena:
- Eusko Jaurlaritza _____
- Foru Aldundia _____
- Udala _____
- Beste batzuk (zehaztu) _____

Bazkideen kuotak: _____

Parte hartzaileen ekarpena: _____

Besterik (zehaztu): _____

DIRU-SARRERAK GUZTIRA: _____